

Ezkerreko militantziaren aldarrikapena

Panfleto para seguir viviendo, Fernando Diaz (Bruguera, 2007), 155 orrialde.

Irakurtzen ari garena ez dela nobela errepikatzen du behin eta berrir *Panfleto para seguir viviendo* (Bizitzen jarraitzeko panfletoa) liburuko narratzaileak. Bera ez dela idazlea, hemen dagoela esatera etorri dela, besterik ez. Idazle handiek ez dute zaratarik atera behar, badaude, gauza jakina da. Berak ez daki beste libururik idatziko duenentz ere.

Beraz autobiografia, saiakera eta nobelaren artean kokatu beharko genukeen liburu baten aurrean gaudela esango dugu. Madrigo erdipurdiko auzo bateko gaztea mintzo zaigu. Anaia heroinak eraman zion, amak kiosko-etako kolekzioak egiten ditu, aita industriaren gainbeherak harrapatu zuen. Ozpinak bizi ditu. Ikasketak utzi eta haxixa saltzen hasiko da narratzailea; postura txikiak hasieran, auzoan bertan; kilo batzuk ondoren, mugaz muga autoarekin; antzeko negoziotan dabilen lagun bat harrapatu eta Frantziako kartzela batean sartuko duten arte. Uzteko ordua.

Liburuek –Jack Londonek idatzitakoek batez ere– harrapatuko dute protagonista. Eskolazain hasiko da lanean eta kalean ikusitako kartel batek ezkerreko talde iraultzaile batean militatzera eramango du –narratzaileak ez dio garrantzirik ematen zein talde den esateari–.

Engaiamendua den aldarrikapena da –titularra irakurrita igarriko zenutenez– liburuko motibo nagusia. Protagonistarentzat militatzea autosalbaziotik gertuen dagoen ekintza da, bere egoera aldatzeko egin dezakeen gauza eraginkor bakarra. Epikarik ez ordea. Bazterrazoko ipurkaleko trapitxero gaztea ez da Superman sozialista bihurtuko. Eskerrak. Protagonistak ezkerre-rako bidea hartzen duenean ere ez du arketipo baten autopistatik egingo, gorabeheraz eta zalantzez betetako bidezidorretik baizik.

Azken apuntea estiloarentzat: irakurketaren erritmoa asko errazten du, kapitulu bakoitzaren bukaerara iristen zarenean, bizitzen jarraitzeko ez dakit, baina liburua irakurtzen jarraitzeko panfleto bihurtuz.



GORKA BEREZIARTUA

Jaso astero ARGIA etxean

Abantaila ugari izateaz gain, Harpidedunen Guneko kide ere izango zara



Izen deiturak:
 Helbidea: Posta kodea: Herria:
 Herraldea: Jaioteguna:
 N.A./I.F.K.: Tel./Faxa: e-posta:
 Ordainketa mota: Bankuz
 Talotiez
 Transferentziaz KOMUNIKAZIO BIZIAGOA S.A.L.ren kontura (ARGIA): 3035 0036 14 0360048647
 Bankuz ordaintzekoek betetzeko soilik
 Banku edo aurrezki kutxa:
 Titularra: N.A./I.F.K.:
 Titularraren helbidea: Titularraren telefonoa:
 Entitatea: _____ Sukurtsala: _____ K.D.: _____ Kontu zenbakia: _____
 Data: Sinadura:

Harpidetza-orri hau zure datuekin bete eta helbide honetara bidali: **142 P.K. / 20160 Lasarte-Oria –Gipuzkoa–**

Aukeratu ongietorri oparia



“Kirolaz badakit”
mahai-jolasa



“888 txiste”
liburua



“Txoriak txori”
lamina



%25eko beherapena
ikasle bazara

Urtebeteko harpidetza:
2008ko prezioak

135 € Hego Euskal Herrian
165 € Ipar Euskal Herrian



ARGIA

35